

# Atarikoa.

## Korrikaren erditzea

---

AEK-k hasiera-hasieratik izan du argi berebiziko garrantzia duela helduak euskaraz alfabetatzeak, baita Euskal Herriko biztanle guztiek euskara ezagutzeak ere. Horregatik, KORRIKA sortzeko garaian, bi alderdi horiek uztartu behar zirela erabaki zuen.

Garai hartako egoerari dagokionez, batetik, beste hainbat ekimenetan gertatu izan den bezala, AEK k diru-premia handia zuen -izan ere, Bizkaian (indar gehien zuen herrialdean) 5 milioi pezetako zuloa zuen-, eta, gainera, Euskaltzainditik jasotzen zuen babesaz zegoela nabari zezakeen; beraz, bide berriak aurkitu behar ziren.

Bestalde, helduak euskaraz alfabetatzeko beharra zegoela ikusten zuen, askok ez zutelako aukerarik izan euskaraz alfabetatzeko edota ikasteko. Guztiok euskalduntzeko eskubidea dugula eta egokiera hori jende orori eman behar zaiola ikusirik, AEK Euskal Herriko txoko guztietara zabaldu nahi izan zuten (kontuan hartu behar da, sasoi hartan, AEK hasia zen Ipar Euskal Herrian ere hedatzen).

Horregatik guztiarengatik, euskara estutasunetik ateratzeko nolabaiteko presa zegoen. Hori zela-eta, AEK-koek "Bai euskarari" kanpainan aritutako jendearekin elkarlanean jardutea erabaki zuten. Kanpainakoekin bildu behar eta, euskaldunok egin ohi dugun bezala, afari baten bueltan egin zuten. Goizeko 7ak arte ibili ziren ideiak hezurmamitzen eta, hala, kasualitatearen ondorioz, kanpaina berria sortu zen, zeinak, gau bateko otordu batetik, sei hilabeteko lana ekarri baitzuen atzetik.

Jaioberriari izena ere jarri behar zitzaion, eta proposamen ugari egon ziren: korrika, laisterka, arineketan, antxintxika, saltaka, takarrara...eta abar. Jendea alfabetatzeko eta euskalduntzeko presa zegoela adierazteko, errelebo-lasterketa egitea erabaki zen. Modu horretan, lekukoa pertsonaz pertsona aldatzean euskararen transmisioa irudika zitekeen; hau da, bata euskara eman eta besteak hartu egiten duela adieraztea zen asmoa. Lasterketa Euskal Herri osoan itzuliz izango zen; horrela, Euskal Herri osoa alfabetatu eta euskaldundu beharra zegoela adieraz zitekeen.

Horrela, bada, errelebo-lasterketa hura Korrika izena izatera pasatu zen, orain denok ezagutzen dugun gisara. Etxeko lanak ongi egin zituzten, afari ospetsu hartan ateratako ideietatik gaur egun arte Korrikak aldaketa gutxi izan ditu-eta. Hala ere, mila eta bat istorio daude edizio bakoitzaren atzean... Gurekin batera errepasatu nahi dituzu? Hurrengo podcastean itxarongo dizuet. Ordu arte, agur eta ondo izan!